

Pexeta berria

Zeruko Argia, 677. zk., 1976-02-29: 5.

Orain arte, guk ahuldua eta txangu-errena ikusten genuen pezetak ez omen zuen ajerik; kontraktatik; lerdan eta ondadez beterik erakusten ziguten.

Lehen rejimena bezala.

Orain, berriz, pezetak zituen estuasunak aitortu beharrekoak eldu zaizkienean, pexeta-ren ahuleri haiek merituak balira bezala asi dira goraltzen.

Oraingo rejimena bezala.

Ahuleriak aitortzea osasungarri da, eta zuzena, okerrak zuzentzekotan bada, baina txangu-errenaren utsak irabazkinak balira bezala sartu nahi badizkigute, alferrrikako lanetan ari dira.

Pexeta berri hau arras exkax-txepel-txalaka da pertsona eta erri bezala bizitzeko behar dugunerako.